


### Zer da itzulketa-postontzia bat?

Postontziak liburutegiko liburuak itzultzea errazten du, eta itxita dagoen orduetan itzultzeko aukera ematen du. Itzultzeko ordutegia eguneko 24 orduetara zabaltzen du, asteko edozein egunetan.

### Zer dokumentu utz daitezke postontzian?

- UNED Bizkaiko Liburutegiko liburuak bakarrik. Inola ere ez beste liburutegi batzuetako liburuak, liburutegien arteko mailegukoak izan ezik.
- Ezin da libururik sartu beren zabalera 4,5 cm-tik gorakoa bada

 Garrantzitsua da kontuan hartzea:

- Arauak berdinak dira, bai postontzian itzultzen bada, bai liburutegiko mostradorean egiten bada. Dagozkion zehapenak ezarriko dira atzerapena dagoenean.
- Itzulketa ez da berehalakoa, Liburutegia irekita dagoen hurrengo egun baliodunean egingo da. Behin hori eginda, berrespen-mezu bat iritsiko da ikaslearen kontura. Maileguak [Nire kontuan](#) kontsultatuz ere egiazta daiteke.
- Postontzi honek ez du itzulketaren frogagiririk ematen. Liburutegia ez da arduratuko postontzian fisikoki ez dauden dokumentuez. Erabiltzaileak bere gain hartzen du uzten dituen materialen erantzukizuna.
- Liburutegiak beretzat gordetzen du zerbitzua egoera berezietan eteteko eskubidea, nahiz eta behar bezala jakinaraziko den.

### Non dago?

UNED Bizkaiaren zentro elkartuaren sarrerako atearen ondoan, (eraikin nagusi)

### Nola sartu liburua?

Gomendagarria da liburua horizontalki sartzea, honda ez dadin.

*Edozein kontsulta edo argibidetarako*  
*Email: [biblioteca@portugalete.uned.es](mailto:biblioteca@portugalete.uned.es)*  
*Tf.: 944 93 74 93*

